

Prentsa oharra

Nota de prensa



**Zergatik botatzen
dituzu maskarak
lurrera?
Bota itzazu dagokien
lekuan:
zakarrontzietan**

**¿Por qué tiras las
mascarillas al suelo?
Depositálas en su sitio:
las papeleras de
basura**



UDALAK GOGORAZI DU MASKARAK ZABORRETARA BOTA BEHAR DIRELA

Maskara erabiltzea derrigorrezkoa bihurtu da espazio itxietan, garraio publikoan edo kalean, baldin eta bi metroko distantzia bermatu ezin bada.

Horren ondorioz, herritar guztiek egunero erabiltzen dituzte maskarak eguneroko zereginetarako. Baina maskara asko, zoritxarrez, lurrean amaitzen dira, bide publikotik botata.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Marisol Garmendia Gune Publikoko zinegotziak gogorarazi duenez, "maskarak behin erabilia, zakarrontzietan edo birziklatu ezin den zaborrontzietan utzi behar dira. Jakin behar dugu maskara horiek bide publikoan uztea praktika txarra dela, baten bat kutsatuta egon daitekeelako, eta ekintza kutsagarria. Toki askotan jada ikusten dira ibai eta itsas hondoetan plastikozko maskarak eta eskularruak, koronabirus bidezko kutsatzeak saihesteko erabiltzen direnak".

Garmendiaren esanetan, "kaleak garbitzeko zerbitzuko langileek ezin dute kutsatu, maskara horiek lurretik jaso behar dituztelako. Erraza da zakarrontzi batean uztea, hondarreko frakzioko edukiontzietan, edo etxera eramatea zabor-poltsara botatzeko, gero dagokion edukiontzian uzteko".

Maskarak auzo guztietan antzeman diren arren, Erdialdean eta Grosen jaso dira gehien, hondartzak hurbil daudelako, beharbada.



En muchos lugares la proliferación de mascarillas en los fondos marinos es un problema